

36ko Gerra. Martxoko kronika

Durango

lehen euskal Pompeia

Handiak txikia estaltzen omen du, eta hala gertatu zen gerran izandako hainbat sarraskirekin. Oroimenaren eta historiaren matrioska tragikoak bailiran, Gernikako bombardaketak estali zuen Bilbok, Eibarrek, Otxandiok hala Durangok jasandakoa. Baina tragedia horiek izandako oihartzunaren gainetik, Durangoko bombardaketa Bizkaiaren kontrako behin-betiko erasoaldiaren hasiera izan zen, eta gerra tankera horren adierazpide latzenetakoa gainera.

JOSU CHUECA

1937KO OTSAILEAN, Malaga hartu ostean, Mussolinik bidalitako tropek Madril erraz bezain azkar menperatuko zutela uste zuten. Francoren eta Molaren soldaduek lau hilabete pasa zeramatzaten hiriburuko inguruak zanpatzen baina madrildarrek eutsi egin zioten erasoaldiari. Faxistak ez ziren pasatu, ez. Hori dela eta, Francoren aldeko soldadu italiarrek Guadalajaran eraso zuten, Madrilek Mediterraneoko eskualdeekin zuen lotura puskatu nahian; oster, egundoko porrota jasan zuten. Egia esateko, armada errepublikanoak baino gehiago egin zuten lokatzak eta lainoak, italiarren eraso oztopatuz. Ondorioak oso gaitzak izan ziren Roatta jeneralak gidatzen zituen *Corpo di Truppe Volontari-entzat* (CTV). Soldadu asko preso hartzeaz gain, fronte lerroa laga behar izan zuten arrapaladan egindako atzeratzean. Mussolinik amesten zuen garaipen azkarra umiliazio zakar bihurtu zitzaizen.

Guadalajaratik iparraldera

Porrot horrek beste ondorio bat ekarri zuen, Madrilek faxisten lehen helburu izateari utzi zion. Jakina, tropa nazionalak hiri hori inguratzen jarraitu zuten, baina beste fronte batzuetara bideratu zituzten gerra saio nagusienak. Izan ere,

Durangoko bombardaketaren berri emanez Eusko Jaurlaritzak kaleratutako liburuxka zaharraren azala.

gerraren amaiera ez zen Madril eskuratzearekin bat etorriko, frontez fronte eta eskualdez eskualde lortutako garaipenekin baizik. Irizpide horri helduz, penintsulako iparraldean jarri zituzten begiak Molak, Francok eta beraien aliatuek, Condor Legioak zein CTV italiarrak.

Asturiasek, Santanderrek eta Bizkaiak osatzen zuten Kantauri aldeko lur zerrendako frontea egonkor zegoen 1936ko abenduaz geroztik. Nazionalak, Aranda koronel faxistari esker, Oviedori eutsi zioten bitartean, errepublikanoek eta bereziki euskal armadako borrokalariek beraien fronteak sendotu zituzten Lekeitiotik Enkarterriraino. Bi defentsa lerro nabarmendu ziren Euskadi autonomoan, bata Eibar, Elgeta eta Bizkaiko mugetatik zihoana. Bestea, barne aldean, “Burdinazko Hesia” deiturikoa, Bilbo ingurua defendatu behar omen zuena. Horien eredu, orduarte izandako gudak ziren, eta bereziki Lehen Mundu Gerran martxan jarritako defentsa egonkorren estrategia. Eredu horri jarraiki, porlanezko babesak, bunnerrak, metraileta-habiak, lur zakuekin eta enborrekin babesturiko lubaki luze eta bihurriak... Horiek guztiak artilleria eta infanteriako erasoerik aurre egiteko gauza



izanen ziren. Baina, hor ere ustea erdia ustel. Gerra egiteko modu berriek –batez ere frankistek hegazkineria bonbardatzeko erabili izanak– nabarmen utzi zuen defentsa mota horren ezintasuna. Durango izan zen horren lekuko.

Tabira zaharra helburu

Ez zegoen Tabira zaharra (Durango) fronte lerroan, Elgeta, Eibar edo Otxandio ez bezala. Beste tokietan legez, hainbat batailoik –"Kirikiño" batailoiak, esate baterako– koartela Bizkaiko hiri honetan zuten, baina bertako tropa multzoa fronte lerroan edo Bilbon zegoena baino askoz apalagoa zen. Dena den, Durango izan zen Bizkaiaren aurkako erasoaldiaren hasierako jomuga nagusiena. Nazionalak, artilleriaz eta Nafarroako brigadetak soldaduez baliatuz Otxandiotik eta Arrasatetik eraso egin zuten bitartean, hegazkinen frontetik hamabi kilometrora zegoen hiria eraso zuten hiru egunez. Durango eta Elorrioren aurka buruturiko hegazkin erasoak, mundu mailan egindako lehen lur eta aire operazio bateratua izan zen. Baina horrez gain, helburu militar ez zirenak jo zituelako nabarmendu zen oldarraldia. Orduan abiatu zen Gernikarekin jarraipen tristea izan zuen triskantzen kate luzea, II Mundu Gerran suntsipen latza utzi zuena. Francok operazioari baietza eman zion erasoaldia hasi zen egun berean; militarren artean banatutako instrukzioetan argi eta garbi irakur zitekeen: "Aire indarrek tokian tokiko erreserbak erasoko dituzte, biztanleria zibilari jaramonik egin gabe". Eta halaxe egin zuten. Orduko hedabideek zabaldu zutenaren aurka, Durangoko bonbardaketak ez zituzten Condor Legioko hegazkin alemaniarrek burutu, italiarrek baizik. Erantzukizun politikoa eta militarra aipaturiko legioaren buruari, W. Von Richtoffen-i, Emilio Molari eta Juan Vigon ministroari dagokie, baina eraso Soriako basean



Durangoko bonbardaketaren ondorioak. Beheko argazkian Carlos Morilla apezaren gorpua, Andra Mari elizaren hondakinen artean.

zeuden *Aviazione Legionaria*-ko "Savoia 81" hegazkin italiarrek egin zuten. Antza denez, Guadalajarako arantza mingotsa kendu nahian-edo, protagonismo berezia eman nahi izan zieten italiarrei.

Martxoaren 31n, goiz-goizetik abiatu ziren Soriatik bi bonbardaketari talde eta Logroñotik aieratutako beste ehiza hegazkin batzuen laguntza izan zuten. Gipuzkoa atzean lagata, Durango atzean orduko, bertako Andra Mari eliza hartu zuten iparra eta jomuga. Kurutzia gainetik jausi ziren bonba botatzen, inolako erresistentzia barik, ez baitzegoen aire-defentsarik. Erraz bete zituzten emandako aginduak. Izan ere, goizeko 8:30etan jendea mezan zegoen elizan, eta hor sortarazi zituzten hildako gehienak. Andra Mari eta Josulagunen elizan antzeko tragediak errepikatu ziren. Teilatua eta harrizko gangak zeharkatu zituzten bonbek, bete-betean harrapatu zituzten meza entzuten ari zirenak. Hondakinen artean hilik aurkitu zituzten bi apez, Carlos Morilla eta Rafael Billabeitia, baita ehundik gora eliztar ere. Arratsaldean bonbardaketak errepikatu zituzten hegazkin nazionalak Elorrioren eta Durangon; zeregin horretan, hileriko bidean eta inguruetan ihesi zebiltzan herritar ugari bonbardatu eta metrailatu zituzten. Hurrengo egunetan, apirilak 2an eta 4an "Savoia 81" hegazkinak, lehen aldian bezalaxe Logroñoeko ehiza hegazkinen lagunduta, Durango aldera ekarri zuten samina eta heriotza berriz ere.

Eraso guztien ondorioz, herriak kanpo zeuden milizianoen kasernek ez zuten batere kalterik izan. Aldiz, Andra Maria eliza inguruak, eta Kurutzia, Barrenkale, Barria eta erdialdeko kaleetako eraikinak guztiz suntsitu zituzten. Durangok pairaturiko bonbardaketak ordurarte izandako bonbardaketa guztien biktima kopurua aise gainditu zuen. Izan ere, lehen egunetan 127



BIZKAIKO ONDAREA
DENON ESKURA
Kultura ondarearen zabalkuntza. 2007

Ziortzako Kolegiatako erretaulak
zaharberritzea

Bolibarko Santo Tomas Elizaren
birgaitze integrala

Ikustaldi gidatuak, apiriletik abuztura
Informazioa, telefono hauetan:

94 616 41 14 - 94 406 77 25

Literaturaren argitan

Telesforo Monzon, *Gudarien egiñak* (1947, Graf. Moderne)

Elizak harrapatuak



"*Eleizan kristauak otoitzean:
Sapaia yausi ta arrapa azpian!*

(...)
*Bakea baitegu biotzetan,
ez degu iltzeko beldurra! ,... "*

Monzon Olaso

Hautatu dugun liburuak, ez du prezeski, Durangoko bonbardaketarekin berebiziko harremanik. "Tabira" izeneko poema da sarraskiarena bete-betean harrapatzen duen poema bakarra. Monzon Olasoren *Gudarien egiñak* liburuak, abestiak biltzen ditu eta gerra garaiko gertakariak harilkatu abesti horien bitartez. Telesfororen liburua ordezka genezake, Joseba Sarrionandiaren *Ez gara gure baitakoak*, narrazio bildumarekin. Iurretakoak "Durango 1937" mikro ipuina argitara eman zuen Pamielako liburu hartan. Inork, oroimen historikoaren ukatzea ikusi nahi izan du kontakizun horretan, agian, ukazio horren atzean, gogorarazteko nahia kausi daiteke, Sarrionandiak, ezinbestean, sarraskia ekarri baitu lehenengo planora, (...) ez pentsatu izurriteen edo herese erreketen ondoren

bezala oroimin legez bakarrik arrastatzen garenik. Ahanzteko esfortzua egiten duenak aurrez aurre du gertatutakoa.

Baina, gutxi dira, bereziki narratiban, aipamenak. Hauxe guztia are nabariagoa da Gernikak gure imaginarioan duen tokia aintzat hartzen badugu. Ezaguna denez, Tabirakoa Gernikaren parekoa izan zen, eta eliza bonbardatzearena sinbolo bihur zitekeen, baina ez zen horrelakorik gertatu, afera honetaz Lutxo Egiaren *Paperezko Hegazkinak* eleberrian aipamen iradokorra aurki dezakegu, "Durango elizgabetua izan zen Kristoren izenean".

Orain arte literaturaren argitan honetara euskaraz sortu testuak ekarri ditugu, gaurkoan hautsi behar dugu sasiaraua. Durangokoak bereziki hunkitu zuen Cesar Vallejo poeta peruarra "Hileta erredoblea Durangoko hondakinei" idatzi baitzuen. Edorta Jimenezek euskaratu zuen poema, hona hasiera: *Aita hautsa Españatik igoten zarena,/ Jainkoak salba, libra eta koroa zaitzala,/ aita hautsa arimatik goratzen zarena.*

Durangotik Gernikara doan bidea egin zuen Jaime Vargasek, eta gerra amaitu gabe, Durangora itzuli eta bertan laketu. Baina, hori guztia hurrengo baterako.

Patxi Larrión

lagun lurperatu zituzten herrian bertan. Hurrengo egunetan, Basurton, Zornotzan, Deustun eta beste ospitaleetan hil zirenak gehituz gero, 256 pertsona ingurura igo zen hildakoen kopurua.

Bonba gaineko gezurrak

Horretan ere, beranduago Gernikan gertatu bezala, gezurrarekin saiatu ziren agintari frankistak bere gehiegikeria ezkutatzen. Queipo de Llano ohikoa zuen harrokeriarekin, honako hau bota zuen irratitik: "Gure hegazkinak Durangon helburu militarrek bonbardatu zituzten, baina komunistek eta sozialistek elizan sartu arazi zituzten apezak eta lekaimeak, errukirik gabe fusilatu eta elizei su emanez". Hala ere, bonbardaketa jasan ondoren, ia hilabetez jarraitu zuen Durangok errepublikanoen eskuetan. Horrekin posible izan zuten nazioarteko lekuko esanguratsuen bitartez bonbardaketa horien berri ematea. Izan ere, apirilaren 2an, hegazkin eraso eta etenda zegoela aprobetxatuz, britainiar eta frantziarrek osatutako batzorde bat bertaratu zen hara. Atzerritarrek bertan zeudela, egun horretako bonbardaketaren lekuko izan ziren eta nazioartean zabaldu zuten haren testigantza zuzena. Beste batzuen artean, Margarita Beer, Monica Whardy eta John Mc Murray izan ziren testigan-

tza horien sinatzaile. Egia bere lekura eramateko balio izan bazuen ere, nazionalak Bizkaia bonbardatzen jarraitzeko asmoa agertu zuten, Bilboren aurkako erasoak edo Gernikakoak laster frogatu zuten bezala. Erraza zuten oso erasotzea, zeruan inolako areriorik ez baitzuten. Eta hor, zeruan izandako desorekan, nabaritu zen bi aldeek arteko desberdintasunik handiena.

Iparraldeko frontean gerra irabazteko modu eraginkorra izan zen hura nazionalentzat. Hegazkinerian eta artillerian nagusi ziren erabat frankistak. Gudari eta milizianoek zaila zuten lurlean zerutik zetorkien infernu horri aurre egitea. Molak behin eta berriro airetik botatako panfletoen bidez zabalduak izuaren mezuak "Bizkaia osoa desegingo dot", Durangon izan zuten estreineko emaitza. Geroxeago etorri ziren Bilbokoak, apirilaren 17an, eta guztien gainera ondorio latzena eta osperik zabalena izan zuten bonbardaketa, Gernikakoa, apirilaren 26an. Hiri horren kontra egindakoak, neurri handi batean, Durangokoaren oihartzuna isilarazi zuten. Baina baten batek izkiriatu zuen legez, tabiratarren artean martxoak 31 Ponpeia izan zen: suaz, metrailez, hondakinez eta doluz beraien familietan zizelkatuak gelditu zelako betirako egun hura. ■

